

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2012-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoaren eta sozietate publikoen fiskalizazio txostena mamitu du, 2012ko ekitaldiari dagokiona. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako batek baterako boto partikular konkurrizailea egin du.

Txostenak kontularitza eta legezatasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezatasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Honela, bada, sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk Diru-bilketarako Erregelamenduak zerga zorrak geroratzeko eskabideak ebazteko ezarritako gehiengo epea ez dela bete jakinarazi du; zerga zor horiek 34,7 milioi euro ingurukoak izan dira eta horrek ordainketa planik ez dela zehaztu eta dagozkion bermeak ere ez direla eskatu erakusten du.

Langile gastuei dagokienez, 2012ko abenduan bai behin-behineko langileek, bai langile funtzionario eta lan kontratupekoek ere, “erosahalmena galtzeagatiko Ordainsari Osagarria” jaso dute, hilabeteko zenbateko oso batekoa, guztira 5,2 milioi euroren zenbatekoan; horrek 20/2012 LED urratu du, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa, sektore publikoko langileen 2012ko abenduko aparteko soldata ez ezik, berariazko osagarriaren ordainketa gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak kentzeari dagokionez.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan, salbuespenek kirol erakunde bati milioi bat euroren publizitate-babesletzako kontratu pribatu bat esleitu izana dute jomuga, administrazio kontratazioan buru egin behar duten legezko printzipioak gorde gabe; prozedura negoziatua baliatuta bi zerbitzuren esleipena, lehiari publikotasunik eman

gabe; eta azkenik, 3,6 milioi euroren zenbatekoan hainbat zerbitzu eta horniduraren kontratazioa, esleipen prozedurari buruzko betekizunak saihestuta.

Diru-laguntzei dagokienez, HKEEk azpimarratu du Diputatuen Kontseiluak 1,6 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkiela toki erakundeei, enpresei, irabazi asmorik gabeko erakundeei eta erakunde publikoei, behar bezainbat egiaztatu ez dela prozedura hori baliatzea justifikatuko duten legerian aurreikusitako arrazoiak gertatu direnik.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik, nagusiki, hainbat kontularitzako doiketa, Diruzaintza Geldikina 85,3 milioi euroan murriztu dutenak eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehatu izana. Azpimarratzekoa da GFari dagokion kopurua kuantifikatzeari dagokionez sortutako zalantza egoera, Espainiako Erreinuari jarritako zigorra dela eta, 7/1997 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako kenkariak eta zerga hobariak berreskuratzeko beharrezko neurriak ez hartu izateagatik.

Txostenak gainera Erakunde Autonomoa eta lau foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu, HKEEren iritzia aldekoa izanik, txostenean bertan deskribatu diren salbuespen jakin batzuk kenduta; horien artean, azpimarratzekoa da langileen atalean 2012ko abenduan, Foru Aldundian bezalaxe, “erosahalmena galtzeagatik Ordainsari Osagarria” ordaindu izana, hilabeteko zenbateko oso batekoa, guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan, arestian aipatutako 20/2012 LED urratzen duena. Urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, kontratazioari, diru-laguntzen emakidari, langileen kudeaketari eta beste abarri dagozkionak.

Finantza Analisiaren atalean adierazi da diru-sarrerak bere onera ekartzeak, gastuari eusteak eta inbertsioak murrizteak 2011rekiko aurrekontuko emaitza nabarmen hobetzea ekarri dutela; berebat, 2012ko ekitaldi itxieran erabilitako zorpetzeari buruzko informazioa ere eman da, Aldundiari dagokionez 453,2 milioi eurorena izan dena, eta Bidegi, SAri dagokionez, berriz, 815,5 milioi eurorena.